

## HAZI BONBAK IKASTETXEAN

Hazi bonbak, bizitza sortzen duten eztanda koloretsuak dira, ikastetxean hazi bonbak eraikiko ditugu eta gure ikastetxearen inguruan jaurtiko ditugu.

Hazi bonbak, haziak barnean dituzten buztinezko bolak dira, haizen hazkuntzan laguntzen dute hezetasuna duten bitartean.

### Materialak

- [Sasoiko haziak](#)
- Buztin hautsa
- Ura
- Ongarria
- Prozedura

Buztin hautsa bi heren, ongarria heren bat (zizare humusa, ongarri unibertsala..) eta ura nahastu, bola bat egiteko adinako sendotasuna eman arte.

Buztin bolak egiten goazen heinean lauzpabost hazi buztin boletan sartu.

Hazi bonbak etorkizunean bota behar badira, siku egon behar dute haziak ernetu ez daitezen. Hazi bonba bat heze mantentzen badugu ikasgelan, ernetzen ikusi ahalko dugu.



### **Nola jaurtiki hazi bonbak**

Hazi bonbak egin ostean hauek jaurtitzea egun berezi bat izan daiteke apur bat antzezten bada.

Ikasleak lerro batean ipiniko dira, hazi bonbak jaurtiki behar dituzten eremuari begira, albo batean irakaslea egongo da hazi bonbak jaurtikitzeko agindua emateko. Ikasle bakoitzak hazi bonba bat hartuko du eskuan, atzeraka luzatuko du eskua eta irakasleak ondokoa esango die:

*“Hazi bonbak... prest?” Ikasleek “Bai!” esango dute. “3, 2, 1... jaurti!”*

